

Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak "Luis Martín-Santos. Askatasun garaia" erakusketa hartuko du

Erakusketa idazlearen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko antolatu da, eta ekainaren 15etik abuztuaren 31ra bitartean bisitatu ahal izango da. Erakusketa osatzeko, bi argitalpen berri aurkeztuko dira

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 15a. Vitoria-Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak atek irekiko dizkio "Luis Martín-Santos. Askatasun garaia" erakusketari ekainaren 15etik abuztuaren 31ra, zeina baita XX. mendeko espainiar literaturaren egile garrantzitsuenetako baten bizitza eta lana erakusten duen erakusketa.

Luis Martín-Santosen jaiotzaren mendeurrena dela eta (1924-1964) bultzatutako ekimenen barruan kokatzen da erakusketa. San Telmo Museoak, Espainiako Liburutegi Nazionalak eta Acción Cultural Española (AC/E) antolatuta, erakusketa Vitoria-Gasteizera iritsi da orain, publikoarengana hurbiltzeko 1962an, *Tiempo de silencio* [Isiltasun garaia] argitalpenarekin, narratiba irauli zuen idazle eta psikiatra honen irudia.

Erakusketaren ibilbidea hiru espazio bereizitan egituratzen da. Lehenengoan, bere lan adierazgarriena *Tiempo de silencio* [Isiltasun garaia] argitaratu ondorengo bi urte biziak jorratzen dira, bai eta haren jatorria eta literaturan, psikiatrian eta politikan egindako ekarpenak ere.

Bigarren espazioan, grafikoki azaltzen dira agertoki eta egoera esanguratsuenetako batzuk, eta, aldi berean, *Tiempo de destrucción* [Suntsipen garaia] lanari buruzko gogoeta egiten da, zeina baita Martín-Santosek hil zenean ia amaituta utzi zuen bigarren eleberria.

Erakusketaren amaieran hirugarren espazioa ageri da, *Tiempo de libertad* [Askatasun garaia] lanari buruzkoa; egileak trilogia osatzeko sortu zuen lan hori, eta haren ondarearen indarraldia esploratzeko aukera ematen du.

Erakusketaren osagarri gisa, jatorrizko bi argitalpen berri aurkeztuko dira. **Ekainaren 17an, 19:00etan**, Arabako Sans Soleil argitaletxearen *Solitario precursor de una abundante cosecha* [Uzta oparoaren aitzindari bakartia] liburua aurkeztuko da, **Ignacio Aldecoa Kultura Etxean**. Antonio Rivera argitaratze zuzendariak eta hainbat egilek hartuko dute parte ekitaldian, besteak beste Rocío Martín-Santos, Juan José Lanz eta Edorta Elizagaratek.

Ondoren, **ekainaren 29an, Obras completas de Luis Martín-Santos** [Luis Martín-Santosen lan osoak] lanaren bosgarren liburukia aurkeztuko da, poesiari eskainia eta Galaxia Gutenbergekin argitaratua. Topaketa horretan, Juan José Lanz argitaratzaile eta hitzaurre egileak, Ángela Serna poetak eta egilearen senideek hartuko dute parte.

1962an argitaratu eta XX. mendeko espainiar eleberri onenetakotzat jotzen den *Tiempo de silencio* [Isiltasun garaia] lanarekin lortutako dimentsio literarioagatik igaro da historiara Luis Martín-Santos.

Bere ibilbideak, ordea, bere sormenaren, talentuaren eta konpromisoaren arrastoa utzi zuen hainbat eremutan.

Psikiatrian doktorea izan zen, Salamancan, Madrilén eta Heidelbergén prestatu zen, eta, geroago, Gipuzkoako Probintzia Erietxea zuzendu zuen. Berrogeita hamarrek hamarkadako literatura belaunaldiaren parte izan zen, eta Juan Benet, Ignacio Aldecoa, Alfonso Sastre, Carmen Martín Gaité edo Rafael Sánchez Ferlosio bezalako idazle ospetsuekin izan zuen harremana.

Gipuzkoan, Academia Errante izenekoan parte hartu zuen, zeina izan baitzen lurraldeko historiari, kulturari eta errealitate sozialari buruzko gogoeta espazio bat. Politikoki konprometituta egon zen; Antonio Amat-en eskutik sartu zen Alderdi Sozialistara Zuzendaritza Batzordeko kide gisa, eta hori dela-eta hiru aldiz atxilotu zuten.

Era berean, adiskidetasun estua izan zuen euskal kulturaren erreferente nabarmenekin, hala nola Antonio Eceiza zinemagilearekin, Luis Peña Ganchegui arkitektoarekin, Eduardo Chillida eta Jorge Oteiza eskultoreekin eta Pascual Aldave konpositorearekin.

Luis Martín-Santos 1964ko urtarrilean hil zen Vitoria-Gasteizen, trafikoko istripu baten ondorioz, eta gaur egungo literaturaren bilakaera ulertzeko funtsezkoa izaten jarraitzen duen lana utzi zuen.